

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Bezero berriak erakartzeko, hasierako sustapenak eskainiko ditugu, hala nola, aplikazioa deskargatzean lehen erosketan deskontua izatea. Leialtasun programak abiaraziko ditugu, bezeroek erosketekin puntu trukagarriak pilatu ahal izan ditzaten. Bezeroen iritziak eta hobekuntza proposamenak jasotzeko plataforma bat izango dugu, gure zerbitzua etengabe hobetzeko. Sare sozialen bidez komunitatea sortuko dugu, denden eta bezeroen arteko interakzioa sustatuz eta elkarrekintza bultzatuz.

Horrez gain, bezeroei eskaintzen diegun zerbitzu pertsonalizatua izango da gure indargune nagusietako bat. Bezero bakoitzaren erosketen historian oinarrituta, produktu eta eskaintza pertsonalizatuak proposatuko dizkiegu. Bestalde, gure aplikazioak erosketa-ibilbide optimizatuak eskaintzen ditu, bezeroei denda txikietan erostea erraztuz eta denbora aurreztuz. Fideltasun programen bidez, erabiltzaileek euren erosketen truke puntuak pilatu eta deskontuetan, zozketetan edo produktu eskusiboetan trukatzeko aukera izango dute.

Gainera, gure azoken eta sustapen ekitaldien bidez, bezeroek aukera izango dute denda txikien produktuak bertatik bertara ezagutzeko eta esperientzia interaktibo batean parte hartzeko. Komunikazio-kanal ezberdinak erabiliz, bezeroen beharrei eta iritziei azkar erantzun diegu, eta arreta pertsonalizatua bermatuko dugu.